

# BARRREN

1997ko irailaren 19a  
V. urtea - 206. akia.

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A

**IRITZIA**  
Antton Iriondo

**ERREPORTAIA**  
Gaztetxea

**KALE INKESTA**  
Ezagutzen al duzu  
Gaztetxea?

**UWLErIE711**  
Musikeskola Leku-  
Ederren eraikiko da

**GEHIGARRIA**  
Txikibarren

**BERWIETAN**  
Clara eta Braulio  
Ifurrieta kubarrak  
Elgoibarren

**KIROLA**  
Elgoibarko  
eskubaloiko bi  
jokalari Arratera  
eta Elgorriagara


**KULTURA**  
Aire libreko zineari  
buruzko balorazioa



# Gaztetxea Hirugarrenean bai



“Gazte gara gazte eta ez gaude konforme”



# Ilizkuntzak - 97-98 ikastaroa

## Matrikula epea irekita

### MICEJESA, ALEMANA ETA FRANTSESA

Gillre esperientziak eta prolesionaltasunak bat egiten dute ikasleen beharretatik gertu dagoen lantahle ireki batekin



Maila egiaztatu eta izena eman:



**10tl etlk 06/25arle**

**Ⓜ Arratsaldeko ordutegia**

**G Plaza mugatuak**

**O Asistentzia-ziurtagiri ikasturte amaieran**

**• Irakaslego natiboa** hizitza guztietan

**O Maila guztlak** fralde mfliztuak

**a Cambridge Azte ak** (1090ak gaintzen du) /Goethe Institut

**fi ikusenzunezko ball** bideen erabilera

**• ifizkuntz-laborategia**

**Enpresentzako zerbitzuak**

**Beharren arabe** linguistikoak

**(Forcem/Hobetuz diru-laguntzak)**

**Itzulpena eta interpretazioa**

IMH eraikuntza - San Roke, 1- 20870 ELGOIBAR - Tel: 74 40 40 - Faxa: 74 16 54 E-mail: ils@jetes

# ZEZEN-BIDE

## AUTO-ESKOLA

Auto, autobus, kamioi

eta motorrentzako

gida-baimenak



**%10eko d**  
**Gazte Txartelarekin**



San Frantzisko, 43 — Tel: 74 27 20 ELGOIBAR ■ Zezenbide,1-1 Tel: 20 34 35 — EIBAR



ANTTON IRIONDO

## Kaka astintzen

**G**ure gaur egungo gizartean komunikabideek duten garrantzia gauza jakina dugu guztiok, baita botere politiko-ekonomikoen ere. Horrela, komunikabideek esaten dutena da existitzen den gauza bakarra eta ixikitzen dutena ordea, ez da existitzen. Eta hor dago, hain zuzen ere, komunikabideen eraginkortasunaren karkoa: zer esan eta zer ezkutatu erabakitzeak ematen duen indarrean. Zer, nola eta noiz esan. Zer, nola eta noiz ixildu.

Adibidetxo bat: Miguei Angel Blanco Garrido (oso-osorik gogorazten dut, aizu!) Ermuko zinegotziaren kasuan eman zen neurrigabeko tratamendua (Franco berari ere baino gehiago?) Josu Zabalaren bahiketa eta hilketari ere eman izan balitzaio denok jakingo genuke Basajaunek (Josu Zabalaren ezizena)

Ama bat zuela, Aita ere bai, anai-arrebak ere ba omen zituela, eta agian neskalguna, lagunak ere bazituela; eta bere sentimenduak, grinak, nahiak eta gogoak; eta haurtzaro normala izan zuela euskaldun familia normalean. Eta bularrean (kokotean min gehiago ematen aI du?) tiro bakar batez erahila aurkitu zutela Itziarren egun batzuetan desagertuta egon eta gero. Nork egin zuen hau? Gertaera honen gaizkileek ez zuten azaldu nor

ziren, eta Victoria Prego bezalako "komunikadoreek" ez ziguten argitu "a por quie"n" jo behar dugun espontaneoki. Ez dizkigute Basajaunen hidotzaren irudiak 8.000 aldiz erakutsi, eta herriak bihotzez eskaini zion azken agurraren irudiak ere ez dizkigute egunero 24 orduz eskaini; gaur bai eta bihar ere bai. Eta hau guztia ez zen duela 1.000 urte beste planeta batean gertatu, aurtengo Aste Santuan eta Euskal Herrian baizik. Eta ez dute

inongo "izpiriturik" jaiotarazi; eta ez dute manifestazio "espontaneorik" deitu etabar... etabar... eta... e...

Euskal preso politiko bakoitzak gartzelan daramatzen egunak, etxetik urruntzen dituzten kilometroak, jasaten dituzten jipoiak eta kalean egon beharko luketenen propinazko orduak egunero telebista eta irratietako informatiboetan, egunkarietan eta zopatan ere ozenki eta garbi azalduko ballzkgigute, azkenaldiko gertaera tamalgarri guztiak fantasiaren fruitua besterik ez lirateke izangd. Baina guztiz benetakoak izan dira, telebistak esan ala ez esan.

Nirea ez den esaldi batekin agurtzen naiz.

"Komunikabideekin argi ez bazabiltzate, zapaltzailea maitatu eta zapaldua gorrotaraziko dizuete".

**""Ez dizkigute Josu Zabalaren hilotzaren irudiak 8.000 aldiz erakutsi, eta herriak bihotzez eskaini zion azken agurraren irudiak ere ez dizkigute egunero 24 orduz eskaini"**

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, plurattasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.



## UDAKO AJEAK 2: BELDURREZKO BAT





Nafarroa enparantza, 2

20870 ELGOIBAR

5- 74 41 12

Publizitatea:

ir 74 37 04

Faxa: 74 37 04

ARGITARATZAILEA ————— Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA ————— Elgoibarko Udala

ZUZENDARIA ————— Ainhoa Lodoso

ERREDAKZIO KONTSEILUA ————— Andres Alberdi,  
Rosa Agirregabiria, Mikel Kortabitarte

KAZETARIAK Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro

PUBLIZITATEA ————— Miren Moreno

MAKETATZAILEA ————— Mikel Cornejo

ADMIMSTRAZIOA ————— Amaia Madin  
M. Angeles Ortuoste, Rafa Alvarez

KOLABORATZAILEAK ————— Irati Agirreazaldegí,  
Gemma Agirregomezkorta, Itziar Ajuria,  
Ion Arrieta, Agurtzane Arriola,  
Edurne Bilbao, M. Angeles Exposito,  
Amaia Gorostiza, Juanito Gorostiza,  
Ane Guilló, Jon Gurrutxaga,  
Antton Iriondo, KOKOE,  
Irnanol Larrañaga, Javi LeOn,  
Jokin Martinez, Juan Luis Mugertza,  
Ongarri Zine Kluba,  
Pello Rubio, Julian Segundo, Ixdor Solupe,  
Leire Urkidi, fban Unzar  
Unai Villena eta Julen Zabaleta

BANAKETA ARDURADUNA ————— imanol Larrafiaga


INPRIMATEGIA ————— Gerta Koop, E.

TIRADA ————— 4.000 ale

LEGE GORDAILLIA ————— SS-1.038/92

ISSN ————— 1133-021X

*Elgoibarko Udalak, Eusko  
Jaurlaritzako Kultura  
Sailak eta Foru  
Aldundiak diruz  
lagundutako  
aldizkaria.*



*fundazioa  
fundaciO n*

**1DANOBAT**  
MAQUINAG RERRAMIENTA

## Vascos sij, ETA nol

www.W101e1-1.111e1

**F**ta ni Madrilen jendea gure kontra zegoelakoan. Tontoa halakoa! Ermuko zinegotziaren hilketa-oren osteko Madrilgo manifestazioan oihu hori entzun nuenean, momentuko berotasunak eragindako erreakzioa izango zela pentsatu nuen. Izan ere, Madrilen ez gaituzte sekula begiko izan euskaldunak. Oporrak pasa eta dena ahaztuta zegoela uste nuenean, Madrilgo zezen plazako korrida musikala iritsi zen. Han ere beste horrenbeste: Vascos si, ETA no!. Ez, ez da posible. Egia izango da Madrilen asko maite gaituztela.

Baina ametsak errealitatearen tirinak hiltzen ditu. Raimond kantari kataluinarrari frankismoa salatzea eta bere hizkuntzan kantatzea okurriritu zitzaion, non eta Las Ventas-en. Gizarajoa! Laster entzun ziren gaueko lehen txistuak (gero Pepe Saeritan-ek entzun behar izan zituen gehiago).

Baina, ez al zen ba ETA espainiaren arerio bakarra? ETA desgertzen denean ez al da dena bere onera etorriko? Zergatik lehen aipatutako txistuak? ETA ez dagoen egunean lagako al diguzue guk nahi duguna izaten eta egiten?

Esnatzeko ordua iritsi zait, gauzak lehen bezala ikusten hasteko unea: Madrilen, Espainiaren batasuna ikutuko ez duten vascoak maite dituzte, Espainiaren baitan gustura eta eroso bizi nahi duten vascoak, euskara ondo geratzeko baino ahotan hartuko ez duten vascoak, pakea Alcalako atepetik pasa behar duela pentsatzen duten vascoak,...

Badakit bestelakorik ere egongo dela, hau da, Euskal Herriari Herri izaera aitortzen dion madrildarrak ere badela. Errespetu guztia zor diet hauei, eta euren elkartasuna eskertu nahi nieke.

Amaitzeko, eskari txiki bat Las Ventas-en bildu zirenei. Beste batean Bernabeu-ko edo Calderon-eko harmailak betetzen dituzuenen, **Vascos del PP/PSOE sf, los dem "as no!** oihuka dezakezue. Hobeto ulertuko dugu denok zer esan nahi duen.

**J.A.A.**

BARRENez ez du bere gain hartzen 1RITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

## TIIDILIM

### • "Noiz ikusiko dugu San Frantzisko iturria bere tokian?"

Hirigintzako batzordeburua den Jose Mari Oruesa-gastiri helarazi diogu galderra eta hara hernen bere erantzuna:

"Iturriaren irudi berria enkargatuta genuen. Itxura denez, abuztuko oporrrak direla-eta, zertxobait atzeratu dira gauzak. Erreklamazioa egin dugu eta bidali bezain pronto bere lekuan jarriko dugu".



## KEXAK

• **Elgoibarko dendari bat** kexatzera etorri zaigu hitzaldiak, ikastaroak eta orokorrean **herrian antolatzen diren ekitaldi guztien ordua erabat aldrebesa dela eurentzat.** "Hitzaldi gehienak arratsaldeko 7etan edo 7:30etan hasen dira eta dendariok ezin izaten dugu joan, 8ak arte ez dugulako denda ixten. Asko eskatzea al da, noi-

zean behin besterik ez bada ere, 8etatik aurrera hastea? Ikastaroekin ere berdin gertatzen zaigu, ordutegiarengatik parte hartu ezinik geratzen gara. Eguerdiko 2:30etatik 4:30ak bitarteko tarte horretan edo arratsaldeko 8etatik aurrera gauza asko antola daitezke, eta, guk, dendariok, parte hartzeko aukera izango genuke".

## BAI, ESAN?



**Agustin Alonso**  
Tabernaria

Aste honetako deia herriko tabernari bati luzatu diogu. Izan ere, jakingo duzue taberna, jatetxe eta dantzalekuen ordutegia arautzen duen lege berria ezarri duela Eusko Jaurlaritzak. Lege berriak sektore horretan izango duen eragina jakiteko deitu diogu **Agustin Alonso tabernariari.**

- **Kexa asko sortu du ordutegia murrizten duen lege berriak. Zein iritzi duzu?** - Lege honen arabera tabernok itxi bihar dogu zapatuan goizaldeko 3:30etan hil honetan eta 3etan datorren hiletik aurrera. Oin arte Udaletxiak nahiko esku zabala euki dau horarixuakin. Baina egixa da keja asko dauala jendian partetik. Elgoibanen bertan keja mordua jasota dao Udaletxian. Taberna gainian bizi danak keja eukitzia oso ulergarria da eta Udalak presio haundixa daka alde honetatik.

- **Presio sozialari erantzuteko modua izan al da?**

- Bai. Nere ustez, Jaurlaritzak nahi izan dau "ruta del bacalao" hori moztia. Taberna edo diskoteka hoiek gabeko 12etan ixten dabe eta goizeko 6etan zabaldu. Baina lege honek danak afektatzen gaitxu. Nere ustez ez ditxue gauzak ondo analizau. Gainera, kontutan euki bihar dou gaur egun jendia larunbatian bakarrik erretzen dala eta horregatik piska bat flexibliai izan bihar gera danok. Ez da tehen moduan, osteguna, ostirala, larunbata eta igandia zianian. Lege honekin tabernarixok diru gutxio irabazten badou hil bukaeran, argi dao gastuak ere txikitxu ein biharko diala: publizidadian gutxio gastau, Iangiliai ere gutxio...


- **Hitz egin al duzue Udalarekin gai honi buruz?**

- Momentuz gauzak trankil dao. Jaurlaritzan asmua da herri guztixetan ordu berdinian ixtia tabemak, lege berdina daneri aplikatzia. Oin ikusi biharko da Udaletxe bakoitzak ze zorrotasunakin aplikatzen daban legia.



### ESKERTZA

*1997ko irailaren 9an, 82 urte zituela hil zen LUIS ARKARAZO ZIARANen sendiak, bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



# Gaztetxea!

San Bartolome jaietarako zabaldu zituen ateak Elgoibarren ezagutu dugun hirugarren Gaztetxeak. Sei urte luzez hainbat arazo, istilu eta negoziazio sortu dituen gaia izan da Gaztetxea. Tarte horretan Gazte Asanbladak etengabe jarraitu du gazteen-tzako lokal baten beharra azpimarratuz eta ekintzak antolatuz, besteak beste, akanpadak, manifestazioak, kontzertuak eta abar. Hiru okupazio ere bizi izan ditugu elgoibartarrok. Iaz Gaztetearen aldeko GAKOA plataforma sortu zen eta Udalak Gazte Batzordea eratu zuen. Bilera eta elkarrizketa askoren ostean lortu da akordioa. Elgoibarrek badu bere Gaztetxea.

Pedro Muguruza etorbideko **P**JARVE enpresako lokaletan kokatzen da Gaztetxea. Kolore biziz margotutako Ieihoak, sabai moreak, kartelak zintzilikatuak... Astelehenean, arratsaldeko 8etan geratu ginen arduradunekin. Ertz batean neska koadrila bat zegoen karta-jokoan. Beste aldean, mahai baten bueltan, mutil batzuk berriketan ikusi genituen. Barra bueltan hiruzpalau lagun eta atzeko aldean, kuadrila bat pinuean

jolasean. Gauzak aldatu egin dira, dudarik ez dago, San Bartolome jaietan ireki zenetik, herriko koadrila gazte askok Gaztetxea euren etxea bezala hartu dute. Eta hori funtzionatzen hasi baino ez dela egin. Arduradunek esaten duten bezala, "dana dao eitxeko".

Gazte Asanbladak badu ezaugarri bat azpimarratzekoa dena: konstantzia. Izan ere, azken sei urteotan itzal beltz batek bezala irudi txarrak jarraitu die, "azkenian guri ere erreparoa ematen zigun Gaztetxian aldeko kartelak ipintzia". Halere, beraiek garbi zuten eskubide bat aldarrikatzen ari zirela, herriko gazteek beharrezkoa zutela elkartzeko eta ekintzak antolatzeko lokala. Eta, azkenean, lortu dute. Atzean geratzen dira elkarrizketa antzuak, bi-

eta euren asmoak azaltzea. Horietako batzuen babesarekin Gaztetearen Aldeko Ekimena izeneko txostena idatzi zuten eta GAKOA sortu zen, Gaztetearen Aldeko Plataforma. 1996ko abenduaren 28an Gazte Asanbladak Alkortako lokalak okupatu zituen eta bertan kokatu zen Gaztetxea. Egun batzuk geroago Ertzantzak desalojatu egin zuen. 1997ko urte hasieran, Madalako parkean GAKOA aurkeztu zen. Ordura arteko ekintza eta mobilizazioen emaitza positiboa izan zela esan daiteke eta, poliki-poliki gauzak aldatzen hasi ziren. Izan ere, GAKOA herriko jende askok osatzen du, adin eta lanbide desberdineko jendeak. GAKOAREN babesarekin Gazte Asanblada berrindartu egin zen helburua lortzeko bidean.

## "Hiru okupaño izan dira: Madalako eskolak, Aita Agirreko lokalak eta Alkorta lantegia"

lerak, mobilizazioak, akanpadak, kontzertuak eta hiru okupazio: Madalako eskolak 80ko hamarkadan, Aita Agirre plazako lokalak 1993an eta Madalako Alkorta lantegikoak 1996an.

**GAKOA**  
Gazte Asanbladaren ekintza erabakiorra izan zen Elgoi-

barko pertsonaia, elkarte eta kolektibo guztiarekin harremanetan jarri

## Udal Gazte Batzordea

Udaletxean ere jarrera aldaketa egon zen. Ordura arte ia ez zegoen harremanik Gazte Asanblada eta Udalaren artean eta lokala lortzeko egin izan ziren saiakera guztiak bertan behera geratu ziren. Baina, mamentu horretan, Udal Gazte Batzordea sortu zen, herriko gazteen arazo eta beharrak eztabaidatu eta bideratzeko asmoarekin. Argi zegoen puntu garrantzitsuena Gaztetearen gaia zela. GAKOAK ordezkariak, Gazte Asanbladakoak eta Udal Gazte Batzordeko kideak mahai baten bueltan eseri eta hitzegiteari ekin zioten. Nor zer nahi zuen, nola, non... Zein aukera zeuden, baldintzak...

Alkortako lokala alde batera utzi behar izan zen aipatu lantegia beste enpresaren batek erosi eta aurki bota eta etxebizitzak eraikitzeko proiektua dagoela eta. Baina, Pedro Muguruza etorbideko JARVE lantegiari buruzko proposamena bota zen mahai gainean. Kokapena ezin hobea eta lokalak ere ederrak. Alde biak ados zeuden, lantegiaren jabeekin hitzegi eta akordio



Gaztetxearen gainezka egon zen San Bartolome jaietan egin zuten bazkarian.

batera iritsi ziren. Horrela bada, 1997ko uztailaren 9an hitzarmena sinatu zuten Gazte Asanblada eta Udal Gazte Batzordekoek.

munak egokitzea. Antolatutako ekintzek ez dute izaera politikorik izan behar. Izan ere, Gazte Asanblada eta Gaztetxea entitate autonomoak dira, inolako joera politikorik gabeak. Hor-taz, Gaztetxeak ez du alderdi politi-

lan ein nahi daban. Igeltsaritzari buruzko kontuak dakixenek hortaz en-kargatzen dia, beste batzuk pinturaz, musika eta kontzertuez, idatziez... Ba-koitzak bere abildadien arabera auke-ratzen dau zer nahi daban eitxia". Gaz-tetxea martxan jarri zenetik asanblea guztietan jende askok hartu izan du parte, "media bezela 30 inguru eta hor-tik gora 60 pertsonako bilerak ere ein izan ditzugu".



koen in tere-sik defenda-tuko. Gazte Asanbladak neurtuko du Gaztetxearen martxa. Noi-ze an behin Udal Gazte Batzordearekin bilduko dira ka-suan kasuko gaiak eztabai-datzeko.

Gaztetxeak asteburuetan eta ekintza konkre-tuak antolatzen

direnean taberna bezala funtzionatuko du. Hori dela eta aurretik tabernariekin hitzegin zuten eta ez zen arazo edo ke-xarik sortu. Gainontzean, astegunetan edo ikastaro, hitzaldi eta tailerretan bar-ra ez da martxan egongo. Tabernaren ordutegia gainontzekoena bezalakoa izango da eta ateratzen duten dirua au-tegestiorako erabiliko dute.

## Funtzionamendu asanblearioa

Oraindik egiteko asko dago Gaz-tetxean. Hasiera batean zegoen aurre-kontuaren zati haundi bat Gaztetxea-ren ondoko tailerraren sarrera egiteko erabili behar izan da.

Asmoen artean pabilioian gelak egitea, sukaldea egokitzea, insonori-zatzea eta lurra txu-kuntzea daude, beste-ak beste. Funtziona-mendua asanblearioa da. Hau da, astean behin asanblea irekia egiten dute eta joaten di-ren guztiek hartzen dute parte proposamen, ezta-baida eta erabaketan. Ho-rren arabera banatzen dute lana, "era guztietako jendia dao gure artian eta bakoit-zak aukeratzen dau zertan

## "Gazte askok parte hartzen du Gaztorean. Halere, zenbat eta gehiago, orduan eta gauza politagoak antolatuko ditugu"

Gauzak finkatu gabe dituzte orain-dik. Berriz ere kolektiboekin harrema-netan jarri nahi dute urteari begira egutegi bat osatu eta ikastaroak anto-latzeko, "lehen ere prest azaldu zian. Elkarte desberdinek kursiluak emango ditzue: antzerkixa, komikixa, pintu-ra... Danetik".

Ilusioz hitzegin zuten guztiek, "el-ka ezagutzeko eta gustoko ekintza eta ikastarua antolatzeko aukeria euki-tziaz gain, danetik ikasten da piskat. Oso aberasgarria da eta zenbat eta gehixoa, hobe". Azken finean, Gazte Asanbladako kide batek laburtu zuen bezala, "20 pertsonen gauza politxak eitxen baditxue, pentsau 50 edo 70 pertsona zer eitxeko kapazak izango dian!".



## Urtebeteko hitzarmena

Hitzarmenak printzipioz urtebete-ko iraupena du baina gauzek bide one-tik jarraitzen badute urtero automati-koki berrituko da akordioa. Hori bai, lokakt behin-behinekua da eta helbu-rua, behin-betirako kokagunea topa-tzea da, Gaztetxeak lokal definitiboa izan dezan. Hitzarmenak beste zenbait puntu ere zehazten ditu, esate baterako zarata eta ordutegiari buruzkoak. Gaz-tetxeak bost arduradun izango ditu. Hauek dute Gaztetxeko giltza eta au-zotarrentzat Gaztetxeko musika, ekin-tza eta zaratak molestagarriak izan ez daitezen sailtu behar dira. Gai honi da-gokionez, Gazte Asanbladak auzota-

## "Epe laburrera, herrlko elkarteekin batera ikastaroak antolatu nahi dituzte"

nei idatzi bana helarazteko asmoa du. Aipatu eskutitzaren bidez auzotarrek izan ditzaketan ke-xak jaso nahi dituzte eta, era berean, aholku eta aportazioak bildu. Lokalaren segurua Udalak or-dainduko du eta garbiketaz Gazte Asanblada arduratuko da. Udalaren es-ku geratu ziren, baita ere, pabilioiaren parzelazioa tabikeak jasoz, argi inda-rren eta uraren normalizazioa eta ko-

# Egon al zara Gaztetxean?



**BERTA MARTINEZ**

17 urte, ikaslea

Bai, joan den zapatuan sartu nintzen lehen aldiz. Trago bat hartzera joan ginen eta ondo zegoela iruditu zitzaidan. Oso handia da eta giro jatorra zegoen.



**IKER PALOMINO**

17 urte, ikaslea


Bai. Egunero juten gera lagunak eta arratsaldia han pasatzen dou. Asko gustatzen jata daon ambientia. Guretzako elkartzeko leku bat da.



**MIRIAM MENOR**

20 urte, ikaslea

Ez. Jaietau sartu nahi izan genuen baina hainbeste jende zegoen,... Niretzat beste taberna bat bezalakoa da. Antolatzen diren ekintzak interesatzen bazaizkit sartuko naiz.



**OIER THURRUKA**

18 urte, ikaslea


Bai. Oso gustura nao Gaztetxe honekin. Astian zihar eta asteburuetan kudrila-kuak juten gera. Kalian li biharrian han eoten gera, berbetan, zeozer eitxen,...



**AINHOA SANTOS**

14 urte, ikaslea

Ez. Niri ez zaizkit horrelako gauzak gehiegi interesatzen. Beste era bateko giroa gustatzen zait. Nahiago dut tabernetan eta kalean



**KEPA ARRIETA**

18 urte, ikaslea

Egunero han eoten gera. Biharrezkua zan gaztetxia. Ni ez naiz lanian eon baina kuadrilakuak bai. Oin bihar dana da kontzertuak, ikastaruak eta holakuak antolatzia.



**KENSINGTON**

Pedro Muguruza etorbidea, 8

Tel: 74 02 36174 35 12

Faxa: 74 02 36

E-mail: [kensington@redestb.es](mailto:kensington@redestb.es)

## MATRIKULA ZABALIK INGELES, FRANTSESA ETA ALEMANA

- 15 ordutegi aukeran
- Klaseak egunero edo egun alternoetan
- PET, KET, First, Advance eta Proficiency azterketak
- Multimedia
- Internet

GIPIJKOAKO  
ACEIGIFECEIHZKUNTA  
ZENTRUEN ELKARTEKO  
KOEAK



## Udal Gazte Batzordea eta Gaztetxea

**B**adira hilabete batzuk Elgoibarko Udalak Gazte Batzordea eratzeko erabakia hartu zuela. Bere sorreran genion bezala, Elgoibarko gazteria osoaren arazoei irtenbideak topatzen saitzeko osatu zen Batzordea. Horretarako planning bat eginda geneukan, gazteekin harremana zuten herriko erakunde edo taldeekin bildu eta, euren iritzia jaso eta lan egutegi bat prestatzeko asmoarekin.

Eatzorde hau sortu eta berehala Elgoibarren aspalditik zintzilik geneukan gai bat agertu zitzaigun mahai gainean, GAZTETXEA.

Horrelako gai batek zuen garrantzia eta eragina ikusirik, gai horretan lanean hasi behar genuela erabaki genuen eta hasi ere bai, buru-belarri, nahiz eta horretarako aurretik genuen planning-a atzeratu beharra izan.

Makinatxo bat batzar egin genuen Gazte Asanbladakoekin **Gaztetxe** probisional baten beharra zela eta. Egia esan, batzarrak gure ustetan giro onean egin ziren eta ki ulerturen bat kenduta, gauzak ondo joan zirela pentsatzen dugu.

Udalak bi helburu jarri zituen negoziaketetan: bat, **Gaztetxea** irekia eta plurala izatea; eta bi, **Gaztetxe** inguruko herritarrekin errespetuz jokatzeko. Bi baldintza hauek betetzeko bitartekoak jarrita daude eta hala azaltzen da sinaturiko akordioan.

Orain denborak esan beharko du hori horrela den ala ez. Horretarako, akordioak dion bezala, noizean behin Gazterxearen martxaren jarraipena egiteko bilduko gara.

Lehenengo aldia da Udalak eta Gazte Asanbladak akordio bat sinatzen dutela Elgoibarren, eta hori Elgoibarrentzat positiboa dela pentsatzen dugu. Konpromezu hori jaietan izan den giroan igarri dela esan daiteke.

Ez dugu inork pentsatzerik nahi honekin Gazte Batzordeak bere lanak bukatu dituela. Elgoibarko gazteriaren arazoak ez dira **Gaztetxean** bukatzen gure iritziz. Horregatik, aurretik genuen planning-ari helduko diogu eta herriko elkarte ezberdinekin bilduko gara euren kezkak eta arazoak entzun eta, ahal izango balitz, soluziobideak topatzeko. Dena den, bere sorreran aipatu zen bezala, batzorde honek ez du Udaleko beste batzordeek bezala funtzionatzen eta ezta funtzionatuko ere. Batzorde zuzenagoa izaten saiatu behar dugu eta gazteekin harreman zuzena edukiko duen lantaldea osatzen saiatuko gara. Dena den, zuzentasun horrek inplikazioa ere eskatzen du eta gaiek ezarriko duten abiadura lantalde dinamikak eta gazteen partizipazioak eta inplikazioak erabakiko dute.

**Ales Arrieta,**  
**Udal Gazte**  
**Batzordeko kidea**

# ETI41ff



## DEGIRA

n7~ o<sup>2/</sup>

/7erC44144/6?

**Herriko Antzokiko sarrera saitzallea**

- **Nolakoa ikusten da bizitza antzoki bateko leihatilatik?** - Txikia, oso txikia.
- **Zinean ikusitako zein abentura bizi nahi zenuke?** - "Lo que el viento se llev6".
- Eta zein maitasun istorio?
- "Lo que el viento se llev6" baita ere.
- **Zein soinu banda aukeratuko zenuke zure bizitzari buruzko pelikularako?**
- Berriz ere, "Lo que el viento se llev6".
- **Zinea antzokian, bideoan ala aire librean?**
- Antzokian. Aire librean behin ikusi nuen eta ez zitzaidan gustatu.
- **Palomita eta pipak jan izan dituzu zinean?**
- Beharbada kakahueteak baina gaur egun zaratak traba handia egiten dit.
- **Zein da zinearen inagia?**
- Argiak kendu eta musikarekin batera irudiak martxan hasten direnean hasten da zinearen magia.
- **Zein aktore edo aktorea eduki nahi zenuke aurrez aurre?** - Ez naiz oso mitomanoa baina batzuk esatekotan, John Wayne eta Rita Hayworth.
- **Sekula atera al zara zinetik pelikula amaitu gabe?** - Inoiz ere ez. Pelikula txarra denean ere bukatu arte egon izan naiz.
- **Gustatzen ez zaizkizun pelikula motak?**
- Beldurrezkoak. Zinera lasai egon eta ondo pasatze- ra joaten naiz, ez tentsioan egotera.
- **Eta negarrik egin al duzu?** Negar ez, bai re bai.
- **Salgai egongo balitz, erosiko al zenuke Marterako biletea?**
- Ez. Momentuz nahiago dut oinak lurrean izatea.
- **Eta jaio aurretik bizitzeko txartela salgai balego?** - Erosiko nuke. Zenbat eta urte gehiago izan, orduan eta bizitzeko gogo gehiago daukat.
- **Non saltzen da zorionerako biletea?**
- Momentu zoriontsuak daude eta nik familia ondoan izatea behar dut.
- **Lanbidez aldatzeko aukera bazenu?**
- Profesionalki ez dakit baina izugarri gustatuko litzaidake organista izatea.

## • Agur hunkigarria Xabi Gomez apaizari

Xabi Gomezek azken meza eman zuen Elgoibarren joan den larunbatean. Arratsaldeko 7etako mezan herritar ugari bildu zen apaiz gazteari agur esateko. Mezan txaloak bai eta malkoak ere izan ziren eta ekitaldi benetan hunkigarria izan zen. Xabi Gomez Eskoriatzara joan da bertako parroko izateko. Laister arte.



## • Txinarren seigarren taldea Elgoibarren

Gaur, ostirala, iritsi da Elgoibarrera Erreminta Makinaren Institutuan formazio ikastaroa egitera etorri den seigarren txinar taldea. Talde hau 14 ikaslek osatzen dute. Hauez gain, itzultzaile bat ere badago eta taldeko arduradun bat. Seigarren talde honekin, guztira 94 ikasle dira IMHn formazioa jasoko dutenak. Txinarrak azaroaren 29ra arte izango dira gure artean. Astelehenean, hilak 22, eguerdiko 12:30etan ongi-etorri ofiziala egingo zaie Udal areto Nagusian, alkatea, AFMko zuzendari nagusia eta IMHko arduradunen partaidetzarekin.

## Hilaren 28an izango da Haurren Perretxiko Lehiaketa

arakate Mikologi Elkarteak urtero antolatzen duen Deba Karroko haurrentzako XXIII. Perretxiko Lehiaketa hilaren 28an, igandea, izango da. Dagoeneko hasi dira herriko neska-mutilak otarrei hautsa astintzen eta mendira joateko prestatzen. Perretxiko sasoiaren bete-betean gaudenez eta eguraldia ere aproposa dugunez, astebururako plana eginda izango du batek baino gehiagok.

Urtero bezala, Perretxiko Lehiaketa

baino lehen, Plaza Handian erakusketa izango da. Sariak eguerdik partera hasiko dira banatzen. Lehiaketan 15 urtetik beherako perretxikozaleek har dezakete parte. Ohienez, perretxikoak egurrezko edo kartoizko bandejetan antolatu behar dira. Lehiaketa egunean bertan, goizeko 10 orretik kaxa guztiak ondo sailkatuta aurkeztuko dira. Honez gain, perretxiko pozointsuak eta jatekoak direnak ondo bereiztuta egon behar dira. Izena emateko epea hilaren 27an iluntzeko 8etan amaituko da. Zeregin horretarako Karakate Mikologi Elkartera zuzendu. Sorta onenek saria jasoko dute eta ohienez, gutxienezko puntuazioa jasotzen duten 10 urtetik gorako el go ibartarrek Erriox ara txangoa egiteko aukera izango dute urriaren lean.

Badakizue, beraz. Otarra hartu eta perretxiko mordoa-ekin bueltatu.



## 131 libete b8P411 amaituko dira San Migeleko arrekastoko lanak

Santa Klara auzoan obretan ari dira aspaldi honetan. Auzotarrak lanak noiz amaituko diren desiatzen daude. Gainera, San Migeleko errekastoko lanak ez ezik, gas naturala ere sartzen ari dira. San Migeleko errekastaren ubidearen hobekuntza lanak bi hilabete barru amaituko dira gutxi gora-behera. Une honetan espaloiak egiten ari dira eta ubide zaharrea konponketa batzuk ere egin behar dituzte. Lanek 300 milioiko aurrekontua dute. 1988ko uholdeetan errekastoa gainezka egin zuen eta horrelakorik ez gertatzeko, besteak beste, egiten ari dira hobekuntza lan hauek. Ubidearen bi zatitan egin dira lan

handienak. Metalkua base-rirra bitartean aire librean egin da ubidea, 140 metro luzeran eta 4 zabaleran. Tartean, kanalera sartzen den urak zaborrik eraman ez dezana, desbideratzeko boltsa

batzuk prestatu dira. Metalkuatik Deba ibairaino, Santa Klara auzoa zeharkatuz, ubide berria egin da lurrazpian. Auzoko etxebizitzetako ur fekalak, berriz, ubide zaharrak garraituko ditu.





## Elgoibarko lantegiak Hannover-eko erreminta makinaren ferian

Europar izaten den erreminta makinaren feriarik garrantzitsuen egiten ari da egunotan Alemaniako Hannover hirian. Mundu mailan hiru dira feriarik inportanteenak: Chiagokoa, Hannover-ekoa eta hiri ezberdinetan egiten den feria ibiltari bat. Elgoibartarrak beti izaten dira feria haue-tan euren stand-ekin. Ohi denez, Elgoibarko enpresa inportanteenak dira Hannover-eko feria parte hartzen ari direnak, besteak beste, Danobat, Kondia, Etxe-Tar, Geminis, Lagun, etab. Hannover-eko erreminta makinaren azoka bi urtetik behin egiten da eta behin Hannover-en egiten bada, hurrengo aldian Parisen izaten da.

## • Amaitu da matrikulazio kanpaina

Haur askorentzat hasi da 97-98 ikasturtea. Beste asko, ertainetako ikasleak, hain zuzen, datorren astean hasiko dira klasean. Matrikula garaia amaitu berri da eta heniko ikastetxe ezberdinetan izena eman, duten ikasle berrien kopurua jaso dugu ondoko taulan. Lehen Hezkuntzako zentroetan 2 urteko zenbat haur apuntatu diren jasotzen da eta irakaskintza ertainari dagokionean, IMHko ikasle berriak zenbat diren etra Herri Institutuan ESOk Iehen mailan eta batxilergoetan hasi diren ikasle berrien kopurua zehazten da. Azterketarako datu modura, iazko matrikulazio kanpainaren berri ere ematen da.

### 97-98 MATRIKULAZIO KANPAINA

	IKASLE BERRIAK		
	97-98	96-97	
16 urte. 12 urtekoak	Ikastola	28	27
	Herri Eskola	19	14
	Pilar ikastetxea	22	18
IMH	Herri Institutua	110	90
		55	45

1111F lor

# Oncji etorri euskarara!

Ongi etorri DEBABEra Udal Euskaltegien<sup>2</sup> Mankornunitatera!

ARIKO

## 1997-98 1KASTURTEKO EUSKARA 1KASTAROKAK

**Eskaintza**  
EUSKALCUNTZE ALFABETATZE eta EGA  
HIZKUNTZ PERFILAK Administrazioa eta Hezkuntza

**Iraupena: Iraila- Ekaina**

**Eskaintza hereziak**  
Mintzamen tailerra • Idazrnen tailerra • Omarrizko alfabetatzea  
**Iraupena: 100 ordu**

**Ikasle eta langabetuentzat prezio hereziak**  
Bekatz sistemaekin ia dohainik ikas dezakezu euskara  
**16 urtez gorakoentzat**

**Ordutegia**  
**ELGOIBAR:** Goizez: 09.00-13.001 Arratsalde: 15.00-19.00  
**MUTRIKU:** Goizet 09.00-12.30 / Arratsalde: 15.30-19.00  
**DEBA:** Arratsalde: 16 00-19.00

**Matrikulaidia**  
Irailaren 2tik 26ra arte

## "DEBABE" UDAL EUSKALTEGIEN MANKOMUNITATEA

**Nafarroa Enparantza, 2 • ELGOIBAR**  
Tel. 74 27 31  
**Txurruka Enparantza, 1 • MUTRIKU**  
Tel: 50 30 94  
**Ifarkalea, 12 beheka • DEBA**  
Tel.: 19 22 36

**DAL**  
E

• **Hiri eta nekazal ondasunen zerga**

1997ari dagokion hiri eta nekazal ondasun mugiezin zergak ordaintzeko epea azaroaren 1 Ira arte luzatuko da. Ekonomi Jar-dueren gaineko zerga azaroaren 10ean ordaindu ahal izango da beranduenez. Ordainagiriak helbideratu gabe dituztenei helbide fiskalera bidaliko zaizkie ordainagiriak. Erreziboarekin Kutxa, Euskadiko Kutxa, Banco Bilbao Vizcaya, Banco Guipuzcoano, Banco Central Hispano edo Udaletzeko Errentaren bulegoetara zuzendu behar da. Urriaren 25erako zergadunak ez badu erreziboa jasotzen Udaltzeko errenta sailean eskatu beharko du. Epearen barruan ordaintzen ez dutenei %20 gehiago, interesak eta kostoak kobratuko zaizkie.

• **Bigarren zabor kontenedorea IMHko etxeetan**

Erreminta Makinaren Institutuaren parean eraikitako etxebizitza berrietan bigarren zabor kontenedorea jarriko da urbanizazio lanak amaitu bezain pronto. Zabor-bilketarako ontziez gain, Mankomunitatea beira eta papera jasotzeko kontenedoreak janzeko aukera aztertzen ari da.

• **PPko zinegotzia ekonomiari buruzko ikastaro batean egon da**

Juan Carlos Abian, PPko zinegotzia Guadalajaran izan zen uztailen zehar. Abianek berak azaldu digunez, Rodrigo Rato, Ekonomia ministroarekin hitzegiteko aukera izan zuen bai eta Cristobal Montoro, Estatuko Ekonomi Idazkariarekin ere. Elgoibar-eko egoera ekonomiko defizitarioaren berri eman zien hauei eta, bide batez, ahaleginak egin zituen dirulaguntzaren bat jaso ahal izateko. Argazkian, Juan Carlos Abian (eskumart) eta Cristobal Montoro ikus ditzakegu.

**Musikeskola Leku-Ederren eraikiko da**

*Uztailaren 30ean sinatutako hitzarmenaren arabera, Elgoibar Inmobiliaria S.A. pronzotorak eraikiko du Musikeskolaren egitura Leku-Eder-en. Ordainetan, enpresa horrek Mintxeta inguruan 150 etxebizitza eraikitzeko proiektuaren azterketa arindu beharko du Udalak.*

1 {MH parean 36 etxebizitza amaitzear daude eta beste 14ren eraikuntza hasi berri dute. Aurrez zegoen proiektu baten arabera, Elgoibar Inmobiliaria S.A. enpresak beste 150 etxebizitza familiabakar eraikitzeko asmoa zeukan, horietako bakoitzaren prezioa 25 milioi ingurukoa izanik. Halabaina, promotarak egin berri duen merkatu ikerketa batek dioenez, Elgoibarren ez dago nahikoa eskaera mota horretako etxeak erosteko. Hortaz, Elgoibar Inmobiliaria S.A. enpresak etxebizitza txiki eta merkeagoak eraikitzea hobetsi du. Gauzak horrela, Inmobiliariak Udalera jo zuen proiektu berriaren azterketa eta onarpena arintzeko eskaria luzatuz. Ordainetan, Musikeskolaren egitura altxatzera konprometitu zen.

180 eguneko epea Hitzarmena uztailaren 30ean sinatu zuten interesatuek eta promotarak 180 eguneko epea du aipatu egitura Leku-Eder-en

altxatzeko. Obra hauen batuz besteko kostua 35 milioi pezetakoa izango da. Hortik aurrera, Udala arduratu beharko da barrukaldean beharrezko obrak egin eta egokitzetaz. Halere, Jose Mari Oruesagasti, Hiri-gintza lehendakariak azaldu duenez, "Iehen urratsa egitura altxatzea izango da. Gero Udalarari dagokio gainontzeko obrekin jarraitzea baina, zoritxarrez, gaur egungo egoera ekonomikoak ez du aukera handiegia ematen epe laburrean ezer egiteko. Zain egon beharko dugu".

Momentu honetan Inazio Bereziartua musikeskolako ikasleak lokal desberdinetan sakabantuak daude: Kultur Etxeko sotoan, Merkatu Plazan eta Aita Agirreko eskoletan. Leku-Eder-eko eraikuntza egiten denean bertan egongo da musikeskola oso-osorik, inolako sakabanaketarik gabe.



Musikeskola kokatuko den tokia, Leku-Ederren.



# Txiki **BARREN**

L.H.K0 IKASLEEKIN EGINDAKO 36. GEHIGARRIA



**Fil**

**erri Eskolako 3., 4. eta 5. mailako ikasleek hiru eguneko irteera egin zuten Tolosara. Esan beharra dago oso aberasgarria izan zela asko ikasi baitzuten. Inguruetako**

**baserriak bisitatu zituzten, horien artean Fernando Amezketarrarena. Amezketa,**

Alegia eta beste hainbat herri ezagutzeko aukera ere izan zuten. Fernandoren herria eta baserria ezagutzeak jakinmin berezia sortu zuen ikasleen artean, pertsonaia honen ipuinak ezagutzen baitzituzten. Tolosako barnetegian oso giro polita izan zuten eta eskulanak eta bestelako ekintzak eginez euskara lantzea zen helburu nagusia.

**7\*(.:112,e,e4.**

Ikerrek gezurtxo bat esan duela eta amak gogor egiten dio errietan:

- Zure adinean ez nuen nik gezurrik esaten!
- Eta noiz hasi zinen ba, ama?



## Jakitunen eskutik

# Haurren eskolarizazioa

**G**aur egungo gizarteak haurren eskolarizazio goiztiarraren beharra sortu du. Hau dela eta, ezinbestekoa gertatu da eskola, adin txikiko (2/3 urte) haurrei egokitzea.

Testuinguru murriztu batean bizi izan den haurra, bapatean, eta ordu kopuru dexentez, espazio ezezagunean eta inongo lotura afektiborik ez duen pertsona batekin aurkitzen da. Egoera hau biribiltzeko, giroa orokorrean ez da bat ere lasaigarria izaten, bera bezain izututa dauden haur askorekin elkartzen baita, horietako ume bakoitzak bere erara kanporatzen duelarik pairatzen ari den estutasuna.

Honen aurrean eskolak zeregin handia du. Espazioa, denbora, giroa, ratioa eta inplikaturako pertsonen (haurrak, gurasoak eta irakasleak) beharrak era koordinatu eta koherente batean planifikatuz



MAITE PEREZ

gero, edozein pertsonaren bizitzan hain garrantzitsua den eskolarizazio prozesua bizipen positibo bihurtuko da.

Haurrari espazio erakargarria, giro lasaia eta gertctkizun aurrikusgarriak eskaini behar zaizkio. Baina horren aurretik, haurrak berak erabaki behar du espazio eta giro horretan integratzea, kanpoko presiorik gabe eta behartuta sentitu gabe. Horrez gain, haurra gurasoengandik banatzen da eta azken hauek ere egoera berrira moldatu behar dute. Izan

ere, gerta daiteke gurasoen beldur eta larritasunak, inkonszienteki, umeari pasatzea. Gehientzat, seme-alabez banatzen diren lehen aldia izaten da. Hasierako bizipen hauek umea eta Hezkuntza Erakundearen arteko harreman emankorraren oinarria sortzen laguntzen dute eta aurrerantzean izango duten garapenean eragin handia dute.

## Zer bitzi daukazu ed40.1-~dadeacea-ri buruz?



040 14,;z

fnolU 4.4ale" Itmle,ko

Uaaeak jp.Wca

whmOu ekaem,

VICTOR MURCIA, 11 urte



4, 4.444 1-44,42,4k. ale~44',4"414,1490 typ.auda"

elatect.

SHEILA NOVOA, 10 urte.



.t)ko e4kotama,k o^,teka4,/~a da,3.41ta,U44,4


pa4a/u. rha4eW,o.

LANDER AZPIAZU, 7 urte

**MARIA COSME****10 urte**

## Galde debalde

- 1- Gelan aurrean ala atzean eseritzea nahiago duzu?
- 2- Maisua ala anderetioa?
- 3- Zein ikasgai gustatzen zaizu gehien?
- 4- Eta gutxien?
- 5- Azterketak aprobatzeko onena?
- 6- Jolasorduan zer jaten duzu?
- 7- Motxila ala karpeta?
- 8- Zer izan nahi duzu handitan?
- 9- Helduengandik zer gustatzen zaizu?

**MIKEL IKLIDSA****urte**

- 1- Atzean, dena ikusteko.
- 2- Andereñoak hobek dira.
- 3- Ingurunea.
- 4- Hizkuntza.
- 5- Ikastea ze andereñoak kopiatzen ikusten bazaitu zero jartzen dizu.
- 6- Gaietak.
- 7- Karpeta.
- 8- Zientifikoa.
- 9- Agindu egiten dutela. Niri ogia ekartzeko esaten didate ze bestela pagarik gabe uzten didate.

- 1- Aurrean ze andereinoak esaten du txikiak aurrean eta altuak atzean eseri behar dila.
- 2- Maisua. Aurten maisu berria daukagu eta ona ematen dau.
- 3- Kopia.
- 4- Irakurketa.
- 5- Ikastea.
- 6- Palmerak eta mandarinak.
- 7- Karpeta.
- 8- Futbolista.
10. Nik beti umea izan nahi dut.

## Zer da *kalea*.....?

**MIELL MUÑO 7 13 ILIE**

Jolasteko eta neska politak ikusteko tokirik ederrena.

**M. ISAFILL AMAIDO 9 urte**

Etxe politak dauden tokia da. Kanean oso ondo pasatzen da.

**IDATIACIA MESCEI 13 URTE**

Kalera irteera oso ondo dago. Etxean geratzea aspergarria da eta azkenean burukomina jartzen zaizu.

**CIL 11 urte**

Jendea ibili eta ondo pasatzen den lekua.

**SANDRA BELLON 8 URTE**


Kalea ibiltzeko da eta kotxeak eta furgonetak aparkatzeko.

**ION IZAZA 13, 11 urte**

Etxeen artean dauden pasabideak.

# Denborapasak: ezetz asmatu!

## 1. Zein pelikula da hau?



## 2. Zer galdetu diegu?



XABIER LOPEZ  
7 urte

"Gustura, ze oporretan ondo ibiltzen naiz baina eskola ere gustatzen zait, lagunekin jolasean ibiltzeko eta gauza berriak ikasteko. Uste dut beti joango naizela gustura eskolara".

MIKEL GORRITI  
11 urte

"Ez dot gogorik eukitzen, ze oporretan askoz denbora gehixo dakazu ondo pasatzeko, jolasteko, hondartzara juteko... Eskolan dana da ikasi eta irakasliekin egotia. Askoz hobeto pasatzen dot lagunekin".



## 3. Hizki-zopa

plhiGuIN<sup>o1</sup> OSTRUKA  
BELATZA Z<sub>1</sub>1(C)1" P1/4



5) 21- P1/4 M<sup>1</sup> RUA<sup>(70)</sup> TV0,41

A P I N P I L I P H  
M A M U A K E T A I A  
B E L A T A G O N B  
A A K I R A L G I  
N I P U T S E R P A  
I S T R R P A B I N  
O M O T R I K G N T  
K L A L M I T O X  
I P A O N A R R A A O  
R I M R I L R  
H E G A K O M T R O  
O L K E T A K I X

## 4. Asmakizunak

**Bitsa sortzen du  
zikina kenduz,  
usain ona du,  
zer den badakizu?**

**Polita naiz aurretik,  
itsusia atzetik,  
etengabe ari naiz aldatzen  
eta besteak imitatzen.**

**Hamabi senideetatik  
bigarrena izanik  
txikiena naiz.**





*Clara eta Braulio anai-arrebak Cubakoak dira. Brauliok orain dela 18 urte EEBBetara alde egin behar izan zuen. Clara-ren alaba bat, berriz, Zoila, Carlos Agirre elgoibartarrarekin ezkondu zen duela pare bat urte. Kontua da, uztailetik Zoilaren azna Elgoibarren dagoela bisitan eta 1110-in entua aprobetxatuz, irailaren 2an Braulio etorri zen horrenbeste urtez ikusi gabe zuen fanziliarekin elkartzera.*

# CLARA eta BRAULIO IÑURRIETA

## "18 urte eta gero Elgoibarraren elkartu gara berriz"

—18 urte ikusi gabe. Ez al da askotxo?

Braulio: Asko. Oso gazte alde egin nuen Cubatik, askatasun bila. EEBBetara iritsi nintzanean bizitza oso gogorra zen. Batetik, ingelasa ikasi behar izan nuen nahiz eta han latino asko bizi den. Bestetik, bizimodua aurrrera ateratzeko gogor lan egin behar. Manhattan irlan bizargina naiz, ezkondu egin nintzen eta zoriotsu bizi naiz baina familia gertu izatea falta zait.

—Halere, izan duzue elkarren berri.

Clara: Bai. 18 urte pasa ditugu ikusi gabe baina etengabean eskutitzak eta argazkiak bidaltzen ibili izan gara eta, ahal izan dugunean, telefonoz ere hitzegin dugu. Dena dela, irailaren 2an ikusi nuenean ezin izan nion negarrari eutsi. Emozioa handiegia zen, poza, zoriona.

—Bost anai-arreba zarete.

Braulio: Bai. Daton'en urtean ea posible dudan Cubara joatea eta familia osoa ikustea. Ziur dagoeneko gainontzeko arrebak jelsokor daudela Clarak ikusi nauelako eta beraiek ez. Udako oporrak aprobetxatuz Zoila eta Carlos ere seguruen Cubara joango direnez, emaztearekin bisita egingo diet nik ere bai.

—Iñurrieta abizena duzue. Aitona euskalduna omen zen.

Clara: Hala da, baina ez dakigu zein herritakoa zen. Egun hauek aprobetxatzen ari gara ea informaziorik lortzen dugun. Soraluzeko Iñurrieta familia batekin egon gara. Oso ondo hartu LYañuzie eta gure aitonaren argazkia erakutsi behar diegu beraiek dituzten beste erretratu batzuekin konparatzeko, ea pertsona bera den. —Zer moduz Elgoibarren?

Braulio: Oso ondo. Sინestezina da jendeak egin digun harrera. Nire bihotzean eramango ditut elgoibartarrak eta boltsikoan helbide mordo bat, hemen gertzen diren lagunei idazteko. Nahi duten guztiak etor daitetze EEBBetara gurera.

Clara: Izugarri polita iruditu zaigu Euskal Herria. Ia egunero ateratzen gara kanpora. Dagoeneko esan didate euskaldun askok baino gehiago ezagutzen dudala Euskal Herrial Kostak eta mendiak paisaia ikusgarria osatzen dute. Zoragarria da! —Mendi gailurrera sekula igo gabe zeundeten.

Clara: Inaiz ere ez! Inpresioa egin zidan mendi gailurrera igo et agoitik behea ikusteak. Oso sentsazio polita izan zen.

—Clara, zer da supermerkatu batean 5 ordu pasa zenueneko istorio hori?

Clara: Ja, ja, ja! Bai, hala da. Arratsaldeko 4etan sartu nintzen Elgoibarko supermerkatu batera eta 9:30etan atera. Detaile guztiak begiratu nahi nituen, iltzeak, baldak nola zeuden josita, torlojuak... Cuban horrelakorik ez dago apenas eta kalean torlojuak aurkitzen ditugunean gorde egiten ditugu, behar ditugunerako. Hemen denetik duzue, zentzu guztietan.

—Penaz alde egingo duzue, beraz.

Braulio: Dударik gabe. Ahal badut. ziur izan itzuliko naizela.

Clara: Penaz baina pozik nire alaba zoriotsu dela ikusi dudalako, herri guztiak ezagutzen du eta asko maite dute. Ama naizen aldetik arduratuta nengoen etorri aurretik baina oso lasai itzuliko naiz.

EESTEEKE5/111/41,1

!Ikusten duzue zein gauza polita! Iñurrieta anai-arrebak Euskal Herrian elkartu dira 18 urte eta gero"  
ZOILA ETA CARLOS (alaba eta suina)





# Luisa Aranburu Salaberria

(1 906-1 970)

Tztailean esan genuen bezala, Felix Etxebenia "Parapan"ek asmatutako eta idatzitako "Nor ote da?" lehiaketa amaitu da. Aste askotan Felixek herriko pertsonaia ezagunen berri eman digu modu atsegin eta errazean. Lerro hauen bitartez gure eskerrik beroenak egin duen lan bikainarengatik. Mila esker.

Lehiaketan parte hartu duten irakurle guztien artean saritxo bat zozketatzeko asmoa genuela esan genuen. Agindu bezala, zozketa egin eta Ana Mari Mugerza izan zen irabazlea. Saria Gabi jatetxean afari dotore bat izan zen bi lagunentzat. Ana Marik esan digunez,

bera eta senarra joan ziren afaltzera eta bapojan zutela ere aitortu digu. Argazkian, Ana Mari Mugerza ageri zaigu.



Sail hau amaitu bada ere, beste zertxobait prestatzen ari gara eta datorren astean guztiaren berri emango dizuegu. Adi egon, zuen guztion kolaborazioa behar-beharrezkoa izango baita.



- Elgoibarko Zubizarta baserrian jaio zen 1906 maiatzaren 17an.
- Bost anai-arreben artetik gazteena zen.
- Baserriko lanetatik libratzen zenean eskolara joaten zen.
- Gaztetan Eibarren egon zen neska-me umeak zaintzen eta bestelako lanak egiten.
- 1927ko urriaren 15ean Lucio Uriguen "Etxegiña"rekin ezkondu zen eta sei seme-alaba izan zituzten. Denak bizi dira eta ezkonduak daude.
- 1935etik 1940ra bitartean "Bar Etxegiña" eduki zuten, gaur egun Iriondo taberna dena. Gerra kontuen inguruan anekdota ugari zekizkien.
- 1940tik 1950era bitartean gaseosa, sifoi eta lixiba edo lejia fabrika izan zuten Madalako kalezuloan. Orduan neska-mutil koskorrak zirenek, gogoa izango dute gaseosaren kanika moduko tapoia.
- Oraindik gazte xamar zelarik, Arrate egunean eta Sargoateko erromeria izaten zenean, umeak hartu eta astonean eramaten zituen denak egun-pasa.
- Sukaldari aparta zen. Trikitia ederki dantzatzen zuen eta soka-muturra gogotik gustatzen zitzaion.
- 1970eko maiatzaren 28an hil zen.

**2111 ANCHUSTRGUI s.a**  
**ZERAMIKAK**

Erakusketa eta bulegoa:  
 Antonio Arritlaga, 6-8  
 83 Postakutxa  
 Tel: 74 33 44 74 06 92  
 Faxa: 74 37 11

Arregitorre, 10 14 behea  
 Tel, 74 20 38•74 23 71  
**20870 ELGOIBAR**  
 Gipuzkoa


  
**karkizano**  
 San Franzisko 12-14 - Tel. 74 05 49

  
**Arrieta**  
 San Bartolome, 18  
 Tel. 74 08 49

c)  


**ASESORIA ETA CONSULTING**  
 - Kontabilitatea - Lana - Fiskala - Aseguruak -  
**INBERTSIO PROIEKTUAK**

Ibaitarte industrialdea, 5 - 169 P.K. - Tel. 74 08 91 - ELGOIBAR

  
**7aabaLrim**

**BELTZ**  
 San Frantzisko, 38



# A

ste honetako erretratu zaharra Juan Marinek ekarri digu. Orain dela 36 bat urte Correos zaharraren aurrean ateratako argazkia da. Arropa dotoreekin jantzita daudenez, domeka izango zela esan di-

gu Juanek. Orduko gazteak zein dotore jazten ziren ere komentatu digu.

Argazkian agertzen direnak honako hauek dira:

Ezkerretik hasita: Juan Etxaniz, Juan Marin, kanpotarra, Guillermo Caballero eta Karmelito (t).



- \* IDAZMAKINEN SALMENTA
- ETA KONPONKETA
- \* MULTIKOPISTAK
- \* FOTOKOPIADORAK
- \* PLANOEN BIRREGILEAK
- \* ERLOJU INDUSTRIALAK
- \* MARRAZKETA MATERIALA
- \* INFORMATIKA
- \* FAX-A

**111 ZINOSA**

Errosario 30  
tel: 74 02 84 Elgoibar

**11111QUE DEL IDASI**

**Enpanadak**

**Enbutidoak**

**Baserriko ogia**

**Bolleria**

Bartolome, 6 / B. Ezenarro, 1 74 33 92/



**INTURAK**

PEDRO PEREZ BERISTAIN

San Roke, 30 behe. a 74 36 52 - 74 27 89

KOMUNITATEAK ETA FATXADAK BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

Kontabilitate

- Lon

Fiskal

**ITT ERCOS ASEGURROAK**



**URKIDI**

**AHOLKULARITZA**

Kalamua, 12  
ELGOIBAR  
Tel-Faxa:  
74 18 91

## Elgoiharren kalitate hancr pilotari gazted daude"



### Antonio Azpiazu

■ Adina: 49

**a Pilotari gogokoena?** Retegi da erregea. Hala ere, Titin gogoko dut eta Unanue ere bai, ondo jokatzeko duenean.

- **Joaten al zara partidu inportanteak ikustera?** Batzuetan bai.
- **Zein beste kirol duzu gogoko?** Txirindularitza, igeriketa eta futbola, noski.

- **Noiztik zabilta pilota munduan?** - Orain dela lau urte sartu nintzen Pilota Eskolan. Semeari pilota gustatzen zitzaion eta ni neu hasi nintzen irakasten. Ikastaro bat egin nuen eta Lagunak Elkartearen laguntza behar zenez, bertan jarraitu dut mutikoei ahal dudana irakasten. Nitaz gain beste batzuk ere ari dira eta txapelketa ezberdinetara eramaten ditugu haurrak.

- **Pilotari izan al zinen gaztetan?**

- Gaztetxoa nintzenean jokatzeko nuen baina bista txarra nuenez laga egin nuen. 16 urterarte edo ibili nintzen.

- **Pilota Federazioan ere bazaudete.** - Bai, aurtan sartu naiz eta lehen-dakariorde lanetan nabil. Denbora kentzen dizu batez ere. Esku pilota saikan ari gara eta aurtengorako eskolarteko jokoetan ari diren haurrentzako txapelketa berrantolatzeke asmoa dugu. Urrian jarriko da martxan eta ohi baino luzeagoa izango da. Gainera, Deba Behe eta Garaiko haurrek hartuko dute parte.

- **Zenbat haur daude Lagunak pilota eskolan?** Denera 60 pilotaritik gora. Gaztetxoez aparte senionak ere hadaude. Pilotak orain duen arazo nagusia zera da: gaztetxo askok eta askok futbola nahigo dutela eta utzi egiten dutela pilota. Gainera, zertxobait nabarmentzen direnak izaten dira alde egiten dutenak. Orain dugun erronka da futbolearen aurrera egiterik ez duten

mutiko horiek berreskuratu eta berriz pilota mundura erakartzea. Gainera, kalitate handia duten mutikoak daude oso txikitatik ari direlako txapelketetan jokatzeko eta esperientzia badutelako.

- **Zein txapelketa antolatzen dituzte elkarteak?** - San Antonetan 1. mailako afizionatuen txapelketa egiten dugu; Deba Arroko Pilota Txapelketa; herrikoen Lagunak Pilota Txapelketa eta eskolarteko jokoetako pilota txapelketak ere guk eramaten ditugu. Honez gain, Euskal Ligan eta Herri Arteko Pilota Txapelketan ere hartzen dugu parte. Orain azken honetan ari gara jokatzeko.

- **Pilotak egiten dituzula ere badakigu. Saldu egiten al dituzte?**

Batzuk bai. Eskuz egiten dituztenak eta dagoeneko 1.000 inguru eginda dituzte.

- **Zein teknika erabiltzen duzute?**

- Plastiko bat hartzen dut, diametro eta pisu jakin batekoa. Gero, latexarekin nahasketa egiten dut eta kozko pilotari erantzen diot. Ondoren zeloarekin estali eta hariarekin bildu. Gero, algodoi finarekin bildu eta narruaz estali. Bukatzeko, narrua eskuz josten dut.

- **Galtzen ari den kirola al da pilota?** - Horrela dela dirudi. Finala ez bada jendea ez da frontoietara joaten. Eta mutikoen txapelketak direnean are gutxiago.

## K I R O L A L B I S T E A K

### • Futboleko emaitzak eta datozen partiduak

Joan den asteburuan bost futbol partidu jokatu ziren. Hona hemen emaitzak:

**Haundi 1** - Racing de Santander 1

Ondarroa 2 - **Elgoibar 3 (2. erreg.)**

**Pedrusko 2** - Gazteak 2 (2. erreg.)

San Viator 0 - **Elgoibar 6 (Oho. jub.)**

Mondragon **3 Elgoibar 2 (1. jub.)**

Asteburuan Itirn partidu jokatu dira Mintxetan.

Neskek ligako lehen partidua jokatuko dute.

Larunbata, 20

16:30 Elgoibar Anaitasuna (0110. jub.)

**18:15 Elgoibar** - Usurbil (1. jub.)

Igandea, 21

16:30 Elgoibar - Trofeo La Atnidad (Neskak)

### • Toloño mendira travesia

Morkaiko Mendizale Elkarteak mendi travesia antolatu du Errioxako Toloño mendira datorren iganderako, hilak 28. Irteera Plaza Handitik izango da goizeko Setan. Bazkaria La Bastidako jatetxe batean egiteko aukera izango da. Izena emateko Morkaikoren egoitzara joan edo telefonoz deitu (74 02 97).

### • igeriketako monitore eta entrenatzaile ikastaroa

Igeriketa Federazioak igeriketako monitore titulua eta igeriketako entrenatzaile-laguntzaile titulua ateratzeko ikastaroak antolatu ditu. Lehen ikastaroa Zarautzen izango da eta bigarrena Donostian. Biak urriaren 11n hasiko dira. Berri gehiago jasotzeko Udako Kirol Patronatura zuzendu edo 74 44 15 zenbakira deitu.

# Arrate eta Elgorriaga eskubaloi !aldeek bi jokalaria elgoibartar fitxatu dituzte

Ander Goikoetxea Elgorriagako jubeniletan jokutzen ari da eta Unai Arrieta, berriz, Arraten

*Elgoibarko eskubaloian kalitate handiko jokalaria daudela dudarik ez dago. Elgoibarko Eskubaloia Elkartea oinarri-oinarritik egin izan duen lanaren fruitua da. Bi elgoibartar, Ander Goikoetxea eta Unai Arrieta, 16 urtekoak biak, eskubaloia ligan momentuan dauden izen handiko bi klubek, Eibarko Arratek eta Irungo Elgorriaga Bidasoak, euren taldeetan jokatzen hartu dituzte. Horrelako gertaerak pozgarriak badira ere jokalarientzat, Elgoibarren maila handiko eskubaloia talde bat sortzeko aukerak asko murrizten dira.*

**A**nder Goikoetxea eta Unai Arrietak argi dute eskubaloian puntan ibili ahal izateko aukera sortzen denean aprobetxatu egin behar dela. Iaz Elgoibarko kadeteekin jokatu zuten eta egia esan, taldea bikain aritu zen, Euskal Ligarako igoera eskuratu baitzuten. Hala ere, klub handiek ateak ireki dizkietenean, bi gazte hauek ez dute bertan sartzerakoan zailtzarik izan. Ander Goi-

koetxeak esan digunez, "kriston ilusivakin nao baina oin lana ein bihar dala argi dakat. Elgorri agak talde haundixa daka goiko kategorian eta klub horretan irteera onak eon leikez". Unairen esanetan "holako talde batian promozionatzeko aukera dao. Puntan ibiltzen dan taldea da Arrate, prestijioa daka. Taz liga irabazi eta Espainiako txapelketia jokatu zaben. Errefortzuak bihar ziala eta, kadetietan geunden Anderri eta bixori deitxu ziguten denboraldi erdixan edo, baina Elgoibarekin zaukagun fitxia uztallerarte amaitzen ez zanez, ezin izan gendun jun". Elgoibarko taldearekin zuten fitxa amaitu zitzaizenean, bi jokalariek ez dute eskaini dieten aukera galtzerik nahi izan.

Irungo Elgorriagak Ander Goikoetxea bere talderako hartu du. Abuztuaren erdi aldera proposatu zioten



*Ezkerrekoa Unai Arrieta da eta aurrerantzean Arratenjokatuko du. Eskuman, Ander Goikoetxea, Elgorriagako fitxaje berria.*

aurrendenboraldiko entrenamenduak Elgorriagako jubenilekin egitea. "Examinak ziala eta irailerarte ez naiz hasi. Oin astian behin juten naiz eta beste egunetan nere kontura entrenatzen dot. Hala ere, esan diate datorren urtian pare bat egunetan edo jun biharko dotela Irunera entrenatzera". Ander oso gustura dago Irungo taldean, "jokalaria asko lehenatik ezagutzen nitxun eta giro oso ona dao".

Unai Arrieta irailaren lehen hasi zen eibartarrekin

entrenatzen. "Pretenporadiaz entrenamenduak oso gogorak izan dia. Egunero entrenatzen gendun goiz eta arratsalde. Ikasteko aukera haundixa dakat, ze jokalaria oso onak dao eta konpetentzia haundixa. Aurten ere, ligan punta-puntan ibiliko da taldea eta Espainiako txapelketan ondo geratzia da asmua".

Dударик ez dago bi jokalaria gazteontzat pauso kualitatibo haundia izan dela bi talde hauekin jokutzen hasitea. Zorte on aurrerantzean.

**Cordon, Vilarchao, c.b.**  
**CeEKORAZIC)A**

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK,  
SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK,  
GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.  
San Roke , 7 behe. Tel.74 28 74 - 74 05 70

**POL-POL**

**A B E R N A**

**San Bartolome, 19 - Tel. 74 08 74 - ELGO1BAR**

## R.1

## 2

## nostalgia

## del canibal"

Hainbat eta hainbat aldiz entzun izan dugu Euskal Herriko musika taldeei jarri izan zaien etiketa: "euskal rock radikal", alegia. Kortatu-rekin hasi zen ezagutzen inugimendu hau. Orditik talde asko pasatu dira gure herrialdeko irratietatik antzeko soinuak topatu nahian (Mak taldea aparteko kasua izan zen). Baina azken urteetan oso talde interesgarriak sortzen eta ezagutzen joan gara (gu behintzat): "Cancer Moon", "Ama say", "Dut" edo gaur aukeratu dugun hau: "El desvan del macho". Hauek ez dira oso ezagunak nahiz eta Arrasatekoak izan. Baina egiten duten musikarengatik benetan kontuan hartzekoak dira. Musika aldetik nahiko bereziak dira, ez baitute egitura arrunta erabiltzen abestien konposaketan. Hala eta guztiz betiko instrumentuak erabiltzen jantzen dute: kitarra, baxua eta bateria. "El desvan del macho" taIdeak inportantzia nabarmena ematen dio letrari. Gaztelaniaz abesten dute, eta abeslaria (Jose G. Izcue) poeta bikaina dugu. Dagoeneko bi diska argitaratu dituzte, biak benetan gomendagarriak: "Hermana violencia" (1992) eta "Lumbar" (1995). Benetan nerez du talde honen munduan murgiltzea, nahiz eta zertxobait kostatu. Talde izugarri baten aurrean gaude, animo, beraz. Zuzenean bikainak dira.

Iban Urizar, **Julen It**

## 15.000 ikusle izan ditu aire libreko zineak

*Ongarri Zine Klubak 97ko udan antolatutako aire libreko zineari buruzko balorazioa egin du. Guztira 17 saio izan dira eta euren kalkuluaren arabera, "15.000 ikusle izan ditugu". Ongarri Zine Klubekoak "oso pozik" daude aire libreko zineak izan duen harrera-rengatik.*

Ongarrikoen esanetan, "Herriko Antzokian emandako pelikula asko aire libreko zinean ere proiektatzen zirela zioen jendeak. Udaleko Kultura Sailak pelikulen alojerarako aurrekontua murriztu egin zuenez, logikoki, estreinoak eskuratzeko aukera ere murriztu egiten da". Halere, Ongarrikoek Herriko Antzokian ikusi gabe zeuden filmeak estrainekoz botatzea Iortu dute: "Space Jam", "Rescate en L.A.", "El Quinto elemento", etab.

Ongarrikoen ustetan, aire libreko zineak "pelikulak ikustera joaten ez den jendeari, jende nagusiari batez ere, denboraldiko pelikula garrantzitsuenak ikusteko aukera eskaini dio". Bestalde, herritarrek abuztuko lehen asteetan pelikulak emateko eskatu bazuten ere, "Udalarekin sinatutako akordioak finkatzen zituen pelikula kopurua baino emateko aukeraez dugu izan, horregatik proiektzioak uztailearen 31n amaitu beharra izan ditugu".

Soinu eskasa

### Jakina da Plaza

Handiko emanaldietan soinuaren kalitatea ez dela oso ona. "Hori dela-eta, Ongarriko soinu-pantaila gehiago jartzea proposatu zion Udala Kultura Batzordeari. Arazoak jabetzen garen, eskakizun hau eta beste batzuk ere, pantaila berria jartzea adibidez, aintzat har dezala eskatuko diogu Kultura Batzordeari". Soinua oso eskasa zenez,

emanaldietan bolumena asko altxatu behar izan dute eta "horregatik, barkamena eskatu nahi diegu inguruko auzotar guztiei".

Bestalde, Txankakua zubian jarritako kortinari esker, aire korronteak ekiditeaz gain, pelikulek definizio handiagoa lortu dute Ongarrikoen ustetan. Ongarri Zine Klubeko kideek aire libreko zinera joan diren guztiei eskerrak luzatu nahi dizkiete euren lanean jarritako konfiantzarengatik.



*Goiko argazkian "Mars Attack" ffirenea, azpian Lue Besson, berak zuzenduriko "El 5° elemento"ren dekoratua, aire libreko zinemaldiko bi pelikula erakusgarrienak.*



## /lia/C&amp;Lete

I KASLEA - 18 URTE



**1 Merezi al du bizitza? Eta Elgoibarren bizitza?** - Bai. Bizitzan gauza txarrak ere badaude baina nik usten dot gauza onek konpensau eitzen dabela. Gainera, momentu txarrak bizi eta gero onak gehixo baloratzen ditxuzu. Elgoibar asko gustatzen jata, hiri haundi bat baino gehixo. Danak ezagutzen gera eta bere desbentajak dakan arren, positiba dala uste dot.

**2 - Eutanasia praktikatu al zenuke familiako batengan?** - Sufritzen egongo balitz eta sendatzeko esperantzarik egongo ez balitz, bai, dudarik gabe.

**3 - Hil eta gero?** - Zeozer badauala sinisten dot. Ez dakit zer, eliziak esaten daban guztixa ez dot sinisten eta, baina zeozer egon bihar da.

**4 - Lehenengo ni eta gero besteak.** Zure buruari begiratu bihar diozu, baina aldamenekuak kontuan hartuta.

**5 - Nori kontatzen dizkiozu arazoak?** - Normalian laguneri. Amakin ere badakat konfiantzia baina gauza batzuk ezin dizkiot kontau.

**6 Zein da zure bizitzako ambizioa? Eta bizioa?** - Heziketa berezia ikasten hasi bihar naiz eta gustauko jatan hor eixia lan. Hori profesionalki. Pertsonalki, ondo dantza eixia izango zan nere ilusiva. Eta biziva, txokolatia!

**7 - Sinesten al duzu politikan? Ematen al duzu botorik?** - Teorian bai baina praktikan gaur egun eitzen dan politikan ez dot gehixegi sinisten. Oin dakat edadia botatzeko eta uste dot hauteskundiak egongo balira botauko nabala.

**8 Noiz joan zinen azkenekoz manifestaldi batera?** Plaentxiko jaixetan, presoak etxera hurreratzian aldeko manifestazio bat zan.

**9 - Euskalduna naiz eta harro nago?** Bai. Erdeldunak ere erres-

petatzen ditxut, hori bai, baina ni euskalduna naiz eta harro nago.

**10 - Zerk galerazten dizu loa?** - Azterketa garaian azterketak eta bestela, zeozer ein eta gero seguru ez naonian buelta asko ematen diot, jendiak zer pentsauko daban...

**11 Egon al zara Gaztetxean?** - Bai. Ibili ginan laguntzen eta jaixetan barran lanian. Bihar zan eta oso gustura nao.

**12 - Gurasoek asko sufritzen al dute zurekin?** - Amak gehixo, batez ere jaixetan gauzez berandu banixe etxera. Ni ailegau arte ez dau lorik eitzen.

**13 Zer da gurasoengandik gehien gustatzen zaizuna? Eta gutxien?** - Amangandik umoria eta aitxangandik mendira juteko zaletasuna. Gitxien, amak pazientzia gitxi dakala eta aitxak ez dabala entzuten, beti beriakn dao.

**14 - Laguntzen al duzu etxeko lanetan?** - Bai, ama lanian dao eta aitxa jubilauta eta nere gelia eta garbi tzen dot.

**15 - Alkoholik gabeko jairik?** Posible da alkoholik gabe ondo patszia. Nere ustez bai.

**16 - Irakurri duzun azken liburua?** - Euskeraz Garoa. Halere, nahiko alperra naiz irakurtzeko.


**17 - Sexua maitasunik gabe ala maitasuna sexurik gabe?** - Maitasuna sexurik gabe.


**18 - Birjinitatea traba ala bertutea?** Ez bata eta ez bestia. Baikoitzari bere momentua ailegaten j ako.

**19 - Homosexual batek maite zaituela esango balizu?** - Hasieran txokau eingo zian baina gero nere adiskidetasuna eskainiko nion.

**20 - Sinesten al duzu betirako maitasunean?**

- Existitxuko da baina nere kausan nahiko zaila ikusten dot.





# 21 igandea

**12:30 BANDAREN KONTZERTUA**  
Herriko Antzokian  
**18:00 DANTZALDIA GELATXOREKIN**  
Jubilatu Etxean  
**19:30-22:15 ZINEA**  
"Hombres de negro"

# 19 ostirala

**22:15 ZINEA**  
"Hombres de negro"

# 20 arunbata

**11:30 ZAZPIKIREN BILERA**  
Ganbaran  
**19:30-22:15 ZINEA**  
"Hombres de negro"

# 22 astelehena

**18:00 MARRAZKETA IKASTAROA**  
Urriaren 1Dera arte  
Antolatzailea: Egur Arte Tailerra  
**22:15 ZINEA**  
"Hombres de negro"

# 26 ostirala

**22:15 ZINEA**  
"Airbag"

■ • • 11 • 111 ■ • • IM • • • ■ • • • •

11  
NE  
A



**Zuzendaria: Barry Sonnenfeld**  
**Antzezleak: Tommy Lee Jones, Will Smith, Linda Fiorentino.**

**Hombres de negro**

Mr. Jones eta Mr. Smith Iurrean bi-zi diren estralurtarrek egiten dituzten delituen aurkako poliziak dira. Beltzez jazten diren bi gizon hauek terrorista intergalaktiko baten aurka egin beharko dute borroka. Elkarren aurka ari diren bi galaxiatako enbajadoreak hil egin nahi dituzte . Beltzez jantzitako gizonak hilketa gerta-tu ez dadin ahaleginduko dira.

• ■ • IE • ■ 111      111 • 111 ■ 111 ■ 1111 • • • ■ • • • • III • 1 1



## SAN MIGELEKO JAIK

### 26, OSTIRALA

**20:00etan**, kanpai jotze eta txafliu jaurtiketa jaien hasiera iragarri.

### 22:30etan bertso jaialdia

Peñagarikano, Egaña, Mendiluze, Jon Sarasua eta Sebastian Lizasorekin.

**Ondoren** erromeria **Egan** taldearekin.

### 27, LARUNBATA

### 22:30etan dantza jaialdia

**Haritz** Euskal Dantzari Taldearekin.

**Ondoren**, erromeria **Luhartz** taldearekin.

### Goizaldeko letan bolo

txapelketa. Lehenengo saria Sthil motozerra.

Bigarrena 12.000 pta. Hirugarrena 8.000 pta. Lauugarrena 4.000 pta, bosgarrena 2.000 pta. eta seigarrena ustekabea. Auzoko lehenarentzat garaikurra.

### 28, IGANDEA

### 11:30etan meza.

**Ondoren** trikitia Balzola anaiekin.

### 12:30etan artzai txakurren erakusketa:

Ramon Larrañaga Rikirekin, Jon Osoro Pintxorekin eta Jose A. Arrillaga Txikirekin.

**17:30etan idi demak:** Soarte, Gorixo eta Madarixako Ezkerra. Lehenengo saria 125.000 pta. eta garaikurra. Bigarrena 110.000 pta. eta garaikurra. Hirugarren saria 100.000 eta garaikurra.

**22:00etan** erromeria **Balzola** anaiekin.

### 29, ASTELEHENA

### 11:30etan meza

**Ondoren**, Ziarda eta Mafiukorta **bertsolariak**,

**13:00etan** auzoko bikoteen **XIV. pilota txapelketaren** azken partidua.

**22:00etan** erromeria **Trabuko** taldearekin.

**Gauerdiko 12etan** txekorraren **zozketa**.

### • Igandean dantzaldiak hasiko dira Jubilatu Etxean

Jubilatu Etxeak urtero antolatzen dituen dantzaldiak igandean, hilak 21, hasiko dira. Ohi bezala, Gelatxo taldeak jarriko du doinua eta elgoibartar edadetuek dantzarako gogoak. Dantzaldiak igandero izango dira arratsaldeko 6etatik aurrera.

### • Alderdi egunerako autobusak

Hilaren 28an, Gasteizko Salburuan, EAJ-PNVk Alderdi Eguna ospatuko du. Elgoibarko Uri-Buru batzarrak autobusa antolatu du bertara joateko. Honez gain, ohienez, ostiralean, hilak 26, beste autobus bat irtengo da akanpadara joateko EGiko gazte eta sinpatizanteentzat. Izena eman nahi duenak Foruen Plazako Batzokira jo dezake edo 74 27 44ra deitu.



### • Udal Musika Bandaren kontzertua

Igandean, hilak 21, Udal Musika Bandaren kontzertua izango da Herriko Antzokian eguerdiko 12:30etan hasita. Jose Antonio Osoro zuzendariaren agindupean bost pieza joko dituzte: "Ragon Falez" Cebrian-ena, "Las bodas de Figaro" Mozart-en obertura, "Entre Flores" Pacheco maisuaren andaluziar dantza, "New York New York" Kander-en selekzioa eta "Katiuska" Pablo Sorozabal nausikagile euskaldunaren pieza ezaguna.

### • Marrazketa artistikoko ikastaroa

Egur Arte Tailerrak marrazketa artistikoko ikastaroa emango du hilaren 22an hasita. Urriaren 10era bitarte luzatuko dira klaseak arratsaldeko 6etatik 8ak arte. 30 orduko iraupena izango du. Izena emateko arratsaldeko 6etatik 8etara bitartean Egur Arte tailerrei zuzendu (Ubitarte plaza).

### • Iazpikiren deialdia

Zazpiki Irratiak bilerarako deia luzatu nahi die joan den denboraldian irrati programa egiten jardun zuten guztiei baita irratsaioak egin izan dituztenei ere. 97-98 denboraldiko lehen bilera larunbatean, hilak 20, izango da goizeko 11:30etan, ganbaran. Lehen bilera honen garrantzia dela-eta, ahalik eta jende gehien hurreratzea komeni dela azpimarratu nahi dute.

## /21fiD211

### FAR MAZIAK

**Egunez** **Gauzez**  
**20 Etxeberria\*** **Escala**  
(Errosario)

**21 Etxeberria\*** **Escala**  
(Errosario)

**22 Etxeberria Etxeberria**  
(Santa Ana kalean)

**23 Etxeberria Escala**  
(Errosario)

**24 Bidasolo Bidasolo**

**25 Yudego Yudego**

**26 Etxeberria Etxeberria**  
(Errosario kalean)

\* (Eguerdiko 2ak arte)

**ESCALA: Rekalde, 1**

**Soraluze. Tel: 75 16 38**

### OKINDEGIA

**21 igandea Idarraga**

## Salerosketak

### ◆SALDU◆

- Idazmakina elektronikoa salgai. tr 74 44 43
- Vespa motorra saltzen dut. tr 909 82 22 59
- Mobilete hat salgai. Egoera eta prezio onean dago. tr 74 17 26
- 120 haxu eta basseti dituen Bos-sini esku soinua saltzen da prezio onean. 1a erahili gabe, eguera onean, ts• 75 61 33 (gauze).
- Egurrezko berogailu haten kal-dera eta hutanozko berc)gailua sal-gai. tr 74 41 28 (Tere, gauze).
- 1,5 metroko ohea egiten den sofa saltzen dut. tr 7425 15
- Aukera interesgarria: Benecci Superligera eskopeta saltzen da. Oso ondo zainduta dago. Bi urteko garantia eta estralt tr 74 03 92 (Dani)
- Peugeot SRD salgai. Merkea. Honda 500 VFR motorra (berria). tr 907 84 40 54 (Unai)

### • EROSI•

- Bigarren eskuko bizikleta estati-koa erosiko nuke. tr 74 41 12/74 02 09

## Bestelakoak

- Begirale holondresak behar dira astialdi talde batean parte hartze-ko. •a• 74 33 05 (Alaitz). Gauze deitu urriaren 4a haino lehen.
- Familia bat edo bi behar dira urrian zehar Elgoiharko Lanbide Eskolara praktikak egitera datozen Alemaniako bi gazte etxean har-tzeko. Izena eman edo datu gehia-go jasotzeko 74 44 80 telefonora deitu. (Mari Asun)
- Irailaren 1 ean Urasandiko erre-bueltan Citroen C-15 eta Ford Orion autoen artean izan zen istri-pua ikusi zuena jar dadila harre-manetan Udaltzaingoa-rein. Mi-la esker.
- Txiki egunean Mendaroko Lan-da erretegiari emakumezko jertse grisa agertu zen.
- Eskusoinuak konponizen ditut merke. Modelo guztiak. tr 47 00 01 (arratsaldeko Setatik 7etara, ostegunetan izan ezik).
- Bergarara goizez joateko autoa behar dugu. Goizeko Setarako Ber-garan egon behar dugu. tr 74 34 99 (Eulali) eta 74 23 28 (Alaitz).

## Etxebizitzak

- Etxea alokatzen da Santa Ana kalean. \$a• 74 02 24.
- Benidorm-en apartamentua alokatzen da. Igerilekua, aparkalekua, garhigailua eta telebista ditu eta hondartzako lehen ilaran dago. tr 74 20 31.
- Etxe eguzkitsua .salgai Sigman, altzariak eta guzti. tr 74 20 78.
- Pisua edo buhardila hat alokatu-ko nuke, Ez zait inporta hen'itik urrun badago. tr 74 43 10 Cristohal.
- Elgoibarren pisua edo gela hat alokatu nahi dut. tr 74 40 40 (M. Eugenia)
- Maiatzetik irailera bitartean etxea alokatzen dut Jakan. tr 74 15 22
- Alcoceber-en apartamentua alokatzen da irailean. Tr 74 22 08

## Lana

### \*ESKAINITZA\*

- Taberna hatean eguneroko garbi-ketak egiteko eta orduka barran edo sukaldian aritzeko pertsona hat behar da. tr 74 37 71
- Neskatala hat zaintzeko neska euskalduna behar da. tr 74 41 54 (MerIxe. Gauze).
- Taberna bat alokatzen da ezin delako atenditu. Bezero onak ditu. tr 74 03 92
- Bi pertsona nagusi zaindu eta etxeko lanak egiteko pertsona bat behar da. Goizeko 9etatik arratsal-deko 8etara. ire 74 29 30 (arratsal-deko 3etatik 4etara).

### • ESKAERA+

- Haurrak zaindu edo garhiketak egiteko neska gaztea eskaintzen da, esperientziarekin. tr 74 43 16 (Marimar).
- Titulodun ileapintzailea edozein lan egiteko prest. tr 74 22 91 (Cristina),
- Haurrak zaintzeko eta garbiketa egiteko neska eskaintzen da espe-rientziarekin. Arratsaldez egingo nuke lan. tr 74 43 16 (Arantxa).
- Emakume bat etxeko lanak egite-ko eta haurrak zaintzeko eskaini-tzen da. u• 74 34 06
- Neska euskaldunak umeak zain-duko lituzke. Esperientzia dauka. tr 74 44 47 (Naiara. Arratsaldez).
- 25 urteko neska eskaintzen da gauetan pertsona nagusiak zaintze-ko. Esperientziaduna. tr 74 36 38 (Arrate)

## Garajeak

- Garajea alokatzen da San Ro-ken, Aterpe tabernarna azpian, le 74 33 39.
- Garajea alokatzen da San Roke 5 zenhakian. tr 74 11 61
- Marradun garajea alokatzen dut San Roken, Karakate elkartearan azpian. tr 74 18 37
- Bi garaje alokatzen ditut Santa Ana kalean. tr 74 05 49 / 74 09 09
- Trenbide kalean garajea salgai. Oso handia da, errulota edo hi kotxe sartzeko beste. Sobrepisoa aatika, tr 74 01 33
- ◆ Urasandin garaje itxia saltzen da. tr 74 08 63

## Partikularrak

- Lizentziatuak fisika eta kintika-ko klase partikularrak emango tuzke. Maila guztiak. tr 74 43 98/74 08 09 (Marian).'
- Marrazketa tekniko eta diedri-koko klaseak ematen dira. tr 74 43 98 (Iliaki)
- Latineko klaseak hartuko nituz-ke. tr 74 12 64
- Ingeleseko partikularrak ematen ditut. tr 74 15 82 (Eduardo)
- Eisika eta matematika klase par-tikularrak ematen ditut. tr 74 13 34 (Andoni)
- Euskarazko eta Lehen Hezkuntzako partikularrak ematen dira. Talde txikiak, a. 74 09 72 (Garikoitz)

## Agurak

- Zorionak Olatz Urbizuri iraila-ren 22an 11 urte heteko dituelako. Familia guztiaren eta Amaia. Ane eta Nerea lagu-nen partez.
- Zorionak Ele-na Babuari ren 21ean urteak beteko dituelako. Bere iloharen partez.
- Hilaren 15ean 9 urte hete zi-tuen Oier Eixanizi zorionak 4. mailako guztien partez.
- Zorionak Jasone Zapikori gaur, ostirala, urteak betetzen dituelako, Familia guztiaren partez egun on hat igaro dezazula.

## Agurak



- Mikel Agirre-beña Iturberri zorionik heroe-nak gaur, hilak 19, bere lehen urtea betetzen duela. Horrela jarrai dezala aurt-te askoan. Familia osoaren partez.



- Joan zen astelehenean Inma eta Amaia-ren eguna izan zen. Zorionak eta muxu haundi bat biori. Artolain familia.



- Zorionak Ar-gia Aranzamen-diri hilaren 17an urteak hete zitue-lako, Bere koina-ta eta iloben par-tez.



- Zorionak Eider Iriondori bihar, hutinhata, 14 urte beteko dituelako. Guraso, ainzpa Itziar eta Saioa-ren eta Mauxitxa-ko sendiaren par-tez egun on hat pa.sa dezazula!



- Zorionak Felix zure 28. urtehe-tzean. Afaria noizko? Urteak daramatzagu zain. Zure ahiz-patxoek maite zaitugu.



- Zorionak Ina-2110 Vazquez-i hilaren 18an ho-geita piku urte hete zituelako. Bere alaha Ain-hoa eta Leireren partez.



- Zorionak Itsa-so Garitagoitia-ri gaur, hilak 19, 10 urte betetzen dituelako. Aita Jesus, ama Con-chi, anai-arreha Iosu eta Ainhua eta familia osoaren partez. Zorionak haita ere Basoetako amama Mariari.
- Zorionak Nagore Eskuderori hilaren 18an 14 urte hete zituela-ko. Familia guztiaren eta Estibali-zen partez,

# Hizkuntza Eskola Ofiziala Eibar



- Titulo ofiziala
- Irakasle lizentziatu eta natiboak
- Maila neurtzeko azterketak euskaraz
- Administrazioako perfilarekin konbaltaduzia

Ikastaro osoa 6,810 pta.

Zerentzako **zaude** matrikula egiteko?

Otaola etorbidea, 29 (Unibertsitate Laborala) Tel: 20 06 18 20 60 48 Faxa: 20 06 78 11

## Larrañaga autoeskola

945 1111111111111111e O



**Aprobetxatu**

**U**tiabubv.

**gida-baimena**

ateratzeko

%10eko

**beherapena Gazte Txartelareldn**

Santa Ana, 11 Tel: 74 10 11 ELGOIBAR

